



Gabriel Arestiren

Euskal Harriak 50 urte

EUSKAL HERRIA IZANGO DA HURRENGO VIETNAM

Joseba Sarrionandiaren ekarpena



Thales Flury de Godoy, (veja a neto),
ao lado de Fidel Castro e demais impulsores
do norte granatário cubano Playa Larga

Playa Largako marinelei Kuban 1973an egin zitzaien omenaldia. Geziak seinalatua, Thales Godoy (Julio López).

ESKUZ IDATZITAKO DEDIKATORIA

Gaur egun esanda, esaerak ez du esanahi argirik, Vietnam ez da aspaldian albistegietako gaia, Vietnam zertan dagoen eta zelakoa den ere desagertuta dago informazio kultura orokorretik. Baina orain 50 urte esanez gero, esaldi horrek bazuen esanahia, eta larria.

Esaera Gabriel Arestik idatzia da. Xose Neira Vilas idazle gallegoak hainbat liburu zituen Habanako etxean, Kriseilu editorialekoak. Eta eskuz idatzitako dedikatoria zuten liburu guztiek, gazteleraz:

“Euskadi será el próximo Vietnam”

Gabriel Aresti

Gabriel Arestiren beraren *Euskal harria, Harri eta herri*-ren bigarren edizioa, eta *Harrizko herri hau*, Fray Marcos da Portela edo Valentin Lamas Carvajalen *Nekazariaren dotrina* euskaraz eta gazteleraz, Tomas Meaberen *Hamalau alegia* hiru hizkuntzetara itzuliak (katalanez Ricard Salvat, gallegoz Xesus Alonso Montero, euskaraz Gabriel Aresti), Meaberi begiak suabe ixteko eskaera ederrarekin.

Sarrerako orrialde zurian horixe agertzen zen liburuotan, Euskal Herria izango zela hurrengo Vietnam. Esaera hori konprenitzeko gogoia izan dut harrezkero, kontestuari buruzko informazioa bilatu dut, eta hauxe da kontatu nahi dizuedana. Gabriel Aresti, Xosé Neira, Ernesto Che Guevara eta, batez ere, marinel ezezagun bat aipatuko dizkizuet.

Zelan esplikatzen da esaldia? Badakizue Vietnamgo gerra gogorra eta luzea izan zela. Herri txiki horren erresistentzia heroikoa zen kolonialismoaren aurka, lehenengo japoniarren aurka, gero frantsesen aurka eta, azkenean, amerikanoen aurka, Inperioaren handikeria guztia erori zitzaionean gainera.

Gabriel Arestiren esaera Ernesto Che Guevararen esamoldearen erantzuna da. 1966an Boliviara joan zenean “Munduko herriei mezua” utzi zuen, *Tricontinental* aldizkariaren bidez zabaldu zena 1967ko apirilean, *Crear dos, tres... muchos Vietnam* titulatzen da batzuetan. Mezu hartan esaten da:

“¿Cómo podríamos mirar el futuro de luminoso y cercano, si dos, tres, muchos Vietnam florecieran en la superficie del globo, con su cuota de muerte y sus tragedias inmensas, con su heroísmo cotidiano, con sus golpes repetidos al imperialismo, con la obligación que entraña para éste de dispersar sus fuerzas, bajo el embate del odio creciente de los pueblos del mundo! Y si todos fuéramos capaces de unirnos, para que nuestros golpes fueran más sólidos y certeros, para que la ayuda de todo tipo a los pueblos en lucha fuera aún más efectiva, ¡qué grande sería el futuro, y qué cercano!”¹

Inperialismoaren aurka vietnamdarrak erresistentzia gogorrean ari ziren, eta, Chek esan nahi zuen beste Vietnam bat, bi, hiru, lau sortu behar zirela inperialismoaren kontra. Inperioak ez zuela hamaika gerra sostengatu ahal izango eta amore eman beharko zuela. Uste zuen herri txiki duin eta balienteak gauza zirela etsai handiari irabazteko. Eta uste zuen hori esan-eginez, konplitzera joan zen Kongora, lehenengo, eta Boliviako muinoetara, gero.

Kubako Iraultzaren eta Aljeriako independentziaren ondoren, Vietnamgo erresistentzia. Vietnamgo gerraren kontrako manifestazioak mundu guztira zabaldu ziren, Berkeleyko Unibertsitateko ikasleengandik hasita. Estatu Batuetan, aurretik zetozen beltzen eta eskubide zibilen aldeko mugimenduari, Martin Luther King eta Robert Kennedy hilko zizkieten. Sozialismo askeago bat planteatu zen Pragako udaberrian, 68ko maiatzeko iraultza utopista piztu zen Parisen, eta Tlatelolcoko sarraskia gero Mexikon, Joko Olinpikoekin batera. Berlinera, Erromara eta beste leku askotara heldu zen belaunaldi berria. Liberalismoak, demokrazia kristauak, sozialdemokraziak edota komunismo sobietikoak eragina galtzen zuten artean, gazteek alternatiba erradikalagoak bilatzen zituzten: troskismoa, maoismoa, gebarismoa...

¹ Ernesto Che Guevara, “Mensaje a los pueblos del mundo”, *Tricontinental*, Habana, 1967-IV-16. *Tricontinental*, OS-PAAAL edo *Organización de Solidaridad de los Pueblos de África, Asia y América Latina* erakundearen aldizkaria zen.

Ernesto Guevara, Bolivian hil zutenetik 1967ko urriaren 9an, gaur berrogeita hamar urte, belaunaldi errebelde horren mito eta eredia bihurtu zen. ‘Ho, Mao, Che!’, pintadak egiten zituen lagun batek. Txabi Etxebarrieta ere, Benta Handin, 1968ko abuztuaren erorri zen, Euskal Herria ere sartzeko Vietnamak planeta osoan ugaltzeko ahaleginean.

GABRIEL ARESTI ETA XOSE NEIRA

Xose Neira idazle gallegoa Habanan bizi zen eta, esan bezala, hainbat liburu zituen Vedadoko etxe hartan. Behin, zirkunstantzia apur bat arraroetan, Gabrielelek egin zion eskaintza-esaeraz galdetzeko aukera izan nuen eta kontestuaren berri eman zidan datu hauekin:

Ba omen zegoen brasildar militar exiliatu bat Habanan, merkataritza-ontzidiko kapitain egin zutena. Behin, kapitain hori, itsasontzi kubatarrek konpontzen ari zirela eta, Zorrotzako nasan zegoen.

Hango taberna batean, brasildar horrek Gabriel ezagutu zuen. Lagun egin eta, brasildarra Xose Neiraren adiskidea zenez, Gabrielelek poltsa bat bidali zuen Kriseiluko liburuz betea.

“Euskadi será el próximo Vietnam.”

Gabriel Aresti

Horrek esplikatu luke esaldia, Cheren ideia jarraituz, Euskal Herria izango zen laugarrena edo bosgarrena...

Baina Xose Neiraren azalpena luzatu egin zen, eta beste anekdota bat gehitu zitzaion.

Handik denbora batera, hurrengo bidaian kapitain brasildarra Bilbora itzuli behar zela eta, Xosek prestatu zuen liburu paketea liburu gallego eta kubatarrekin.

Portuan ez zuen giro samurra aurkitu, salbuespen-egoera (*estado de excepción*) zegoen dekretuta, polizia zebilen bazterretan. Hala ere, kapitain hori, ontzitik jaitsi eta tabernara joan omen zen, liburu paketea besapean. Giro iluna, beldurgarria, polizia patruilan...

Heldu omen zen tabernara eta zabalik aurkitu zuen, baina hutsik.

–Busco a Gabriel Aresti.

Tabernariak mesfidantzaz so egin zion.

–Es quetraigo un paquete de libros de Cuba para–hasi omen zen brasildarra esplikatzeko – para Gabriel Aresti.

–No repitas ese nombre –moztu zion tabernariak izaturik–, que nos van a meter presos...

Baten bat kanpotik sar zitekeelako keinua egin zion, polizia edo. Brasildarrak bere liburu paketea besapean hartu eta, jeepak batetik bestera pasatzen zirela, beldur hotzikarekin itzuli omen zen itsasontzira. Eta liburuak Kubara ekarri omen zituen bueltan.

Noiz gertatu zen bigarren bidaia hori? Salbuespen egoeren zerrendak lagun dezake data zehazten, zazpi urteotan Euskal Herrian. Ernesto Che Guevararen mezua zabaldu zenean ere, 1967ko apirilean, Bizkaia salbuespen-egoeran zegoen. Hurrengo urtean bi salbuespen egoera izan ziren Gipuzkoan. Baina, Gabriel Aresti eta marinelen enkontruaren data beste bi data proposatzeko motiboak daude: 1969ko urtarriletik hiru hilabetez izan zen salbuespen-egoera, eta 1970eko abendutik aurrera hurrengo sei hilabetez.

Xose Neirak, marinela brasildarraren eta Gabriel Arestiren arteko lehenengo enkontrua zer dela-eta gertatu zen azaldu ez arren, igual pieza batek osa dezake gertaeren logika eta kronologia. Hain zuzen, Angel Zelaie-tak idatzitako biografian, Xose Neirak Habanatik Gabriel Arestiri poema liburu bat igorri ziola aipatzen da, *Inquedo latexar*, Xistral editorialean argitaratua, 1969an, eta urte horren azaroan igorria, *“hombre y poeta de*

nuestro tiempo” eskaintzarekin.²

Baliteke lehenengo enkontruan marinela Xose Neiraren liburua entregatzea Gabrieli 1969ko azaroan. Eta marinela Kubara urte bete geroago itzultzea, neguan. ETako militanteen aurkako Burgoseko Gerra Auzia abendu hasieran hasi zen, eta salbuespen-egoera 1971ko ia udara arte luzatu zen.

THALES GODOY ETA JULIO LÓPEZ

Hiru pertsonaia agertzen dira gertaeran: Gabriel Aresti, Xose Neira eta hirugarren hori, marinela.

Gabriel Aresti ezagutzen duzue, urte haietan idazle polemikoa zen, gorria, antiklerikala, eta euskara batzearen eta euskal literatura berritzea bultzatzearen ardura zuen. Ez zen sasoi erosoan izan Gabrielentzat: Rikardo Arregiren heriotza, alaba bat hilda jaio zitzaion, aita ere hil zitzaion, Lur editorialaren sorrera, poliziaren bisitak, euskararen batasun behaztopatua. Ortografiaren gaia arazo pertsonaltzat hartu zuen, Xose Neiraren etxean zeuden liburuetan azaltzen denez. *Nekazariaren dotrinaren sarreran* adibidez:

“...liburu honetan erabilcen dudan euskera-moldeaz, askok aurpegira botacen didate euskera batuaren erregelak ez ditudala onarcen. Egiatik gauza hasanduagorik ez dago, zeren euskera batuari ni baino hurbilcenago zaionik e dago, eta euskera batuagatik entenicen dut Mitxelena jaunak Aranzazun eman zizkigun irakaxkintzak. Euskaltzaindia mutu dago, naiz-ta kasik ukabilkadaka esijicen diogun eranzun bat. Baionako Biltzarrean hartutako erabakiak bijenciarik gabe geratu dira, jarraipenik ezagutu ez dutelako. Mitxelenaren gandik bakarrik apartacen amute burjesa epatacea gatik, eta arrazoia dudalako, erabiltzen ditudan C eta X kaskarin hauek.”

Xosé Neira Vilas ere ezagutzen duzue: Gres herrian jaio zen 1928an, Argentinara joan 1949an eta, *Memorias dun neno labrego* argitaratu ondoren, 1961tik 1994ra arte Kuban bizi izan zen, Anisia Mirandarekin, uhartean 31 urte bete ondoren itzultzeko Galiziara; 2015ean hil zen. Andrés Urrutiak itzulita argitaratu zen euskaraz Xose Neiraren libururik ezagunena, *Mutiko baserritar baten oroitzapenak*.³

Gabriel Aresti eta Xosé Neira ezagunak dira orduan. Baina nor zen, ba, Kubako merkataritza-ontzidiko Empresa de Navegación Mambisako marinela hori? Gabriel eta Xosé utzi eta, ondo legoke ezezagun horren identitatea argitzea.

Ausartuko naiz, identifikazioa hipotesi moduan, izen abizenak ematen: Thales Fleury Godoy.

Thales 1925eko ekainaren 13an jaio zen Goiás estatuko Vila Boa herrian, jauntxo politikarien *Fleury Caia-do de Godoy* familian. Mapan ikusten baduzue, mila kilometrotik gora dago Goiastik itsaertzerara, baina berak marinela izan nahi izan zuen, marinela pelikula bat ikusi zuenetik zinean. Etxekoek ez zioten uzten, marina merkantekoak ganorabako hutsak izaten zirela argudiatuz. Azkenean, mutilari ezin ziotenez itsasoaren ideia burutik kendu eta, sartzekotan, Itsas Armadan utzi zioten sartzan.

Armadan, Thales marxismoarekin zaletu zen, Armadako ofizialen artean petrolioaren nazionalizazioa edo Amazoniaren jabetza bezalako gaiak eztabaidatzen zirenean. PCB Brasilgo Alderdi Komunistako kidea egin zen eta laster markatuko zuten gorritz.

Komunistaren etiketa gorria ipini ziotenez gero, lan burokratikoak ematen zizkieten, itsasotik eta armetatik urrun. Hala ere, suertatu zitzaion uretara eta arma girora sartzeari ere behin baino gehiagotan.

2013ko ekainean Goiâniako *Jornal Opção* kazetan argitaratu zen Thales Godoyri buruzko artikulu biografikoan, Frederico Vitor kazetariak kontatu zuenez:

“*Em um episódio ele ganharia notoriedade e respeito do oficialato: no comando de uma embarcação de guerra, atirou-se à água para salvar do afogamento dois marinheiros que tiveram a canoa virada durante a pororoca — fenômeno natural produzido pelo encontro das correntes fluviais com as águas oceânicas.*”⁴

2 Angel Zelaieta, *Gabriel Aresti*, Kriselu editoriala, Donostia, 1976. Bigarren liburukiko 169 orrialdean.

3 Xose Neira Vilas, *Mutiko baserritar baten oroitzapenak*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1988.

4 Frederico Vitor, “O goiano que comandou a Marinha Mercante da Cuba de Fidel Castro”, *Jornal Opção*, Goiânia, 2013-06-23.

Gero, 1961eko urtarrilean, DIRL *Dirección Revolucionaria Ibérica de Liberación* erakundekoek *Santa Maria* ontzia bahitu zutenean, Armadak Thalesi eman zion, gorritzat zutelako hain zuzen, arazoa konpontzeko agindua. Borrokarik gabe lortu zuen bahitzaileak entregatzea. Gero, urte berean, Cearáko kostan arrantza ontzi frantsesekiko arazoak larritu zirenean, Charles de Gaulleren Frantzia eta Brasil ia gerran hasi zirenean, Thalesi eskatu zioten laguntza.

1964ko apirilean, berriz, João Goulart presidentearen kontrako estatu kolpea gertatu zenean, Thalesek Mexikoko Enbaxadan ezkutatu behar izan zuen. Hiru hilabete geroago, Mexikon erbesteratu zen emaztearekin eta 11 urteko Iván eta 7 urteko Igor seme biek. Emaztea ere, Josina Maria Albuquerque Lopes de Godoy, iheslaria zen, Baseko Heziketaren aldeko Paulo Feireren mugimenduko militantea zelako Pernambuco. Alfabetatzeko kartilla bat idaztea zen bere delitua.

Thales Godoyk Veracruzko ontzietan radarrak konpontzen lan egin zuen, baina 1965ean alde egin zuen Kubara familia osoak. Kuban, lehenengo telebista eta irrati tresnak konpontzen lan egin zuen. Baina laster eskaini zioten merkataritza-ontzidian komandante postua. Horretarako, itsasoan ibiltzeko eta portuetan jaisteko, pasaporte behar zuen eta kubatarrek faltsu bat egin zioten Julio Lopez González identitatearekin.

1966tik aurrera itsasoan ibili zen. Thales Godoy, edo Julio López, European eta Afrikan, Ameriketara eta Asian ere ibili zen: Japonian, Txinan, Korean, Vietnamen. Vietnamgo gerran misio arriskutsuak egin omen zituen, Haiphong portu ezagunean esate baterako, janaria eta gainerako materialak eramanez, eta behin baino gehiagotan saihestuz amerikar armadaren blokeoa.

Frederico Vitoren artikuluan, lagun marinel baten testigantza jasotzen da, erretratu bat bezala. Moabe Felix Bezerra Jr:

“Viajei com o Thales na Netumar, não consigo lembrar qual navio, talvez Zeus ou Joana. Excelente companheiro, gostava muito de bater papo no salão com a turma e sempre falava dos tempos difíceis que passou após março de 64. Lembro bem dele falando sobre ter que consertar TV para sobreviver. Quando chegávamos nos portos ele sempre procurava alguém para sair; era uma companhia muito agradável...”

Portuetara heltzen ginenean, hura beti ahalegintzen zen kanpora ateratzen, lagun atsegina zen. Imajina daiteke Julio Lopez Gabriel Arestirekin hizketan Zorrotzako portuan, gaietako bat Vietnam izango zen agian.

VALPARAISOKO IHESA

Baina, Thales Godoy Augusto Pinocheten kolpean egin zen famatua, Kuban behintzat.

Sozialismoa iraultza armatuaren bidez baizik ezin zela lortu zabaldu zenean, Unidad Popular erakundearekin aldaketa saiakera elektoral demokratikoa bultzatu zuen 1970etik aurrera Salvador Allendek. Prozesu politiko hura 1973an eten zuen Augusto Pinochetek gidatutako armadak.

1973ko irailaren 11n, Valparaisoko portuan suertatu zen Julio Lopez, *Playa Larga* itsasontziaren kapitain. Itsasontzia kubatar flotako handienetakoa zen, upelekoa eramaten zuena garraioa, granelean. Azukrea deskargatzen ari zen, Augusto Pinocheten estatu kolpea gertatzean.

Ontzi kubatarreko karga konfiskatuko zutela abisatu zuten militarrek, azukre artean armak izango zirelakoan. Submarino bat eta akorazatu bat ipini zituzten kubatarrei begira. Thales Godoyk susmatuko zuen, gainera, halako zirkunstantzian, Julio Lopez izenarekin zegoen arren, harrapatuz gero Brasilera eraman zezaketela.

Arratsaldean, apurka-apurka, Playa Larga mugitzen hasi eta badiatik irteten ari zen itsasontzi amerikano erraldoi baten irteera profitatuz, haren ostean ezkutatuta abiatu ziren Valparaisoko portutik. Portuko Kontrolerik errepikatzen zuten:

–Playa Larga, detenga la máquina y regrese al sitio de fondeo.⁵

⁵ Rafael Garcíaren testigantza Interneten aurki daiteke. Marta Harnecker, *Abuelos de Santa Fé, floreciendo en invierno*, MEPLA, La Habana, 1996.

Kubatarrek, estereoan kalitate sinfonikoz entzuten zuten arren, erantzuten zuten:

–*Aquí Playa Larga, repita por favor; que no entendemos, hay mucho ruido...*

Valparaisoko portuko agintariek Pinocheti abisatu zioten eta azken honek ontzi kubatarra erasotzeko agindu zuen, bai ontziz, bai hegazkinez.

Thales sigi-sagaka joan zen ihesean, bonbardatzeko koordenadak zailduz. Hegazkinak eta helikopteroak heldu ziren, beldurtzeko metralla eta ke lehergailuekin.

Arratsaldeko 7etan, gautu orduko ez zen ia aireontzirik ikusten, itsaso zabalean zeuden, baina gerraontzi bat etorri zitzaion. Askoz azkarragoa zen Playa Larga baino. Gerraontzia hogeita hamar korapiloko abiaduran zebilen eta kubatarrek ezin zuten hamahiru korapilokoa baino gehiago.

–*¡Deténganse! ¡Deténganse!* -abisatzen zien gerraontziak– *¡Si no se detienen, los hundimos!*

Playa Largaren aurretik jarri zen trabes, bidea mozteko, baina Playa Larga ez zen gelditu eta, jo orduko, kendu behar izan zuen gerraontziak.

–*Tengo órdenes de mi gobierno de regresar a Cuba* –erantzun zuen kapitainak.

Gerraontzia inguruka hasi zen. Lehenengo, mehatxu kanoikadak jausi ziren *Playa Largaren* ingurura, itua gero benetan jotzekoak heldu ziren. Gerraontzia ababorretik, marinela istriborrera. Gerraontzia istriborretik, marinela ababorrera. Gerraontzia popatik jartzen zenean lemari jotzeko, kapitainak maniobra agintzen zuen, alde egiteko.

–*¡Oye, pero ese hombre está loco, los vamos a hundir!* –esaten omen zuten gerraontzikoek.

Azkenean, gauerdian ja, kostatik berrehun miliatara, nazioarteko uretan ja, gerraontziak utzi zuen erasoia.⁶

Playa Larga bakarrik geratu zen itsaso ilunean. Baina zulaturik zegoen, eta lehenengo sotoa urez beteta, azukre beltzarekin nahastuta, itsasoko ura kanoikadaren zulotik sartzen zelako. Ontziaren aurrealdea erorita zegoen beraz. Orduan, kapitainak agindu zuen zazpigarren sotoa ere urez betetzeko, atzealdeko azkena baitzen, eta hala, branka apur bat altxatzea lortu zuten.

Rafael Garcia kubatarra erizain moduan zihoan *Playa Largan*:

“...*estábamos llenos de agujeros; no nos hundimos sólo por la pericia del capitán, eso hay que decirlo: el capitán salvó al barco.*”

Ontziari oreka apur bat emanda, kapitainak iparraldera abiatzeko agindu zuen. Bi egunetan heldu ziren El Callaoko portura. Orduan, Juan Velasco Alvarado zegoen Peruko presidente, Kubako gobernuaren laguna, eta han konpondu ahal izan zuten ontzia.

Playa Larga ontziak Panamako Kanala pasatu behar izan zuen gero, amerikanoen kontrolpean zegoena orduan. Kanalaren zeharkaldian, zaindari yankiek susmoak hartu zituzten Thalesen azentuaz. Kubatarra ez zela esan zioten, eta Thalesek argitu zien:

–Gallegoa naiz jatorriz. Guk portugesen antzera hitz egiten dugu.

Kuban heroi moduan hartu zituzten, Osvaldo Dorticós presidenteak eta Fidel Castro lehen ministroak gozarrea egin zioten, marinela eta azukrea salbatzeagatik.

LEMA, AMNISTIA ETA ZAMAONTZIAK

Rafael Garciak *Playa Larga* kapitain hori nor zen galdetu eta, dio:

“*Un brasileño llamado Thales Godoy que había sido oficial de la Marina de Guerra en Brasil y que, cuando dieron el golpe de estado contra Goulart los militares, él se llevó el barco para Venezuela. Después vino para Cuba, él era militante del Partido Comunista de Brasil. Cuando llegó a Cuba le dieron trabajo en la Marina, pero*

⁶ Carlos M. Hierro, *Acontecimientos de la M/N Playa Larga a la caída del Gobierno de Allende*. Interneten, circulonal.com.

no de capitán. El primer viaje como capitán fue ese viaje a Chile.”

Orduan, testigantza horren arabera, kapitain karguarena zuzendu beharko genuke. Bilbon Gabriel Aresti-rekin egon zenean, Thales beharbada ez zen kapitaina oraindik. Hori bat etorriko litzateke beste datu batekin, Julio Lopez zazpi urtez izan zela kapitain, 1972tik 1979ra arte, alegia. Ordura arte, bestelako postuak izango zituen ontzietan.

Dena dela, Julio Lopez ezaguna egin zen, eta anekdota barregarri ugariren pertsonaia bihurtu zen. Carlos M. Hierrok kontatzen dituen bi jasoko ditugu, barre apur batekin amaitzeko Gabrielen eskaintza esaeraren azalpena.

Habanan, *Empresa de Navegación Mambisa* enpresako zuzendaria, Dominguez deiturakoa, kapitainarekin bilera izaten zuen bidaien ondoren. Thales Godoyk bidaiaren gora-beheren erreposoa egin ondoren, Dominguez horrek estutzeko moduko galdera egin zion:

–Julio, orain galdera delikatu bat egin nahi nizuke... Kontatu didate gertatzen ari dela eta jakin nahi nuke zer motibo duzun... Zergatik esaten duzu behin eta berriro ni puta semea naizela?

Zuzendariak serio eta zuzen-zuzen begiratzen zion artean erantzun zion Thalesek:

–Hara, zuzendari Jauna, Konpainian kontratatu ninduzunean, kanpotarra nintzenez gero, lankideengandik ikasteko aholkua eman zenidan. Konpainiako beste kapitainek egiten dutena egiten egokitu behar nuela: ikusi, entzun eta berdin egiten ahalegintzeko. Eta horixe egin dut nik harrezkero, Konpainiako kapitain guztiek egiten dutena egiten dut, Dominguez putaseme bat da, ze putasemea den Dominguez, Dominguez putasemea ari dira denak denbora guztian. Nik zeuk agindutakoa besterik ez dut egin...

Dominguezek barre egin behar izan zuen, urduri, kapitainari alde egiteko esan orduko.

Beste ipuin bat gure marinel brasildarraz. Behin batean, Julio Lópezek Rotterdamgo portuan gelditu behar izan zuen itsasontziari lema matxuratu zitzaiolako. Tailerrean sartzeko eskatu zuen, lema konpontzeko. Iluntzean, Navegación Mambisa enpresako Europa iparraldeko arduraduna heldu zen kapitainaren kamaroteran, Junco apellidokoa zen, esanez ontziak Kubarantz jarraitu behar zuela derrigorrez, karga oso inportantea zeramalako. Habanan zain zeundela, ordu erdiko diskurtso iraultzailea egin zion ontzia berehala abiatzearen garrantzi politikoaz.

–Itxaron hementxe momentu bat –esan zion Juliok Juncori–, lema ikusi behar dut...

Juliok ordu erdi egin zuen kanpoan. Eta, bueltan, Navegación Mambisako arduradunari esan zion:

–Junco, izorratuta gaude! Lema gusanoa da, bene-benetako kontrairaultzailea! Zeuk esandako guztia hitzez hitz esplikatut diot nik eta, zer erantzun dit berak? Ba, ezetz, ez dagoela konponduta, ez zaiola ardura Habanan zer gertatzen den, eta ez dela joango!

–Zoaz popatik hartzera, Lopez! –esan omen zuen Juncok oso haserre kapitainaren kamarotetik irteetan-. Bihar, tailerrera!

1978an, Thales Mozambikera joan zen Merkataritza-ontziko eta Itsas Eskola nazional berriak fundatzeko. Portugesek atzean deus utzi gabe alde egin baitzuten handik. Behin, itsasontzi portugese baten errekesan parte hartu zuen...

1979an, Brasilgo Gobernuak diktadurari amaiera eman eta amnistia legea onartu zuen, orduan itzuli zen Thales. Ez zioten Itsas Armadan lekua utzi, baina merkataritza-ontzidian lan egiteko baimena eman zioten eta hurrengo hamabost urteetan zamaontzietan egingo zuen beharra, eta Brasildik Estatu Batuetara eta Kanadara egin zituen bidaiak.

Thales Godoy Rio de Janeiron bizi izan zen, gero Brasilian eta, azkenean, Caldas Novasen, non 81 urterekin hil baitzen, 2006ko abenduaren 2an.